

2024 UDAKO KANPAINA

ZOZKETA, PLAZAK ESLEITZEA ETA MATRIKULA

- Eskaintza baino eskari handiagoa duten jarduera eta taldeetan, **plazak zozketatuko dira**, eta horiek ordena honetan esleituko dira: **lehenengo postuan erroldatutako pertsonak** (gehienez bi txanda jarduera bakoitzeko), bigarren tokian **erroldatu gabeak, baina abonatuta daudenak** (bi txanda jarduera bakoitzeko) eta **hirugarren lekuan interesa duen edozein pertsona** (erroldatu gabeak eta abonatu gabeak, bi txanda jarduera bakoitzeko).
- Izen-emate bakoitzeko, pertsonak zenbaki/kode bat jasoko du posta elektronikoz bidez, eta hori gorde beharko du, gero argitaratutako zerrendetan plaza lortu duen ala ez egiaztatzeko.
- **Ekainaren 12an** argitaratuko dira **behin-behineko zerrendak** (onartutakoak eta itxaron zerrendak), bai Aranguren Ibarreko Udalaren webgunean bai kirol instalazioetako sarrera oholean. Egun horretan bertan, **onartutakoek Kirol Zerbitzuaren mezu elektronikoz bat jasoko dute**, matrikula eta ordainketa prozesua zehaztuz. Garrantzitsua da posta elektronikozko sarrera-erretiluari adi egotea egun horietan, eta, badaezpada, “zabor-posta” edo “spam”-a begiratzea.
- Argitaratzen denetik **4 egun izango dira** (ekainaren 16ra arte, igandea barne) **jarduera transferentzia bidez ordaintzeko**. **Ordainketa hori jardueraren matrikula gisa erabiliko da**. Lau egun horiek igaro ondoren ordainketarik egin ez bada, lortutako plaza/k itxaron zerrendako hurrengo pertsonari pasatuko zaio (*dei edo mezu elektronikoz bidez jakinaraziko zaie tokatzen zaion zerrendako hurrengoari*).
- **Ekainaren 18an (asteartea)** jakinaraziko zaie behin betiko plaza(k) dituzten pertsonari, posta elektronikoz bidez egindako ordainketak egiaztatu ondoren, eta plaza hutsetako itxaron-zerrendako pertsonari deituko zaie.
- Jarduera-kanpaina hasten denean (ekainaren 24a), **EZ da onartuko gastuen itzultzea edo hauen baliogabetzea**. Jarduera eteten denean bakarrik itzuliko da izen-ematean ordaindutakoaren zenbatekoa.

OHAR INTERESGARRIAK

- Jarduera horietan parte hartzea borondatezkoa da. Parte-hartzaile bakoitzak bere aseguruaren bidez estaliko ditu jardueran gerta daitezkeen istripu edo lesioak, eta Udalak ez du bere gain hartuko horrek sortzen duen gasturik.
- **PERTSONA BAKOITZEKO JARDUERA ETA/EDO TXANDA KOPURUA:** Jarduera guztietan izena emateko epe bat egongo da erroldatuta dauden pertsonentzat, eta pertsona bakoitzak gehienez ere bi txandatan eman ahal izango du izena jarduera bakoitzeko. Ondoren, beste egun bat izanen da interesa duen edozeinek izena eman dezan, eta gehienez ere bi txanda izanen dira jarduera bakoitzeko.
- Jardueraren batean plaza lortzen duten eta abonatu gabeak diren pertsonak **KIROLARI-TXARTELA** eskatu beharko dute, gure web orriko galdetegi honen bidez: <https://www.aranguren.es/eu/kiroldegiko-jardueretan-parte-hartzen-dutenentzako-laguntzaileentzako-eta-bazkide-ez-diren-kirolarientzako-informazioa/>. Era berean, egun horietan haur bati jardueran laguntzen dion pertsonak ere txartel hori eskatu beharko du (gehienez ere laguntzaile txartel bat).

GARRANTZITSUA: abuztuaren erdialdean, Udalaren 2024-2025 ikasturteko Kirol Programaren berri emango da hainbat bidetatik, eta izena emateko epea irailaren hasieran izango da.